

**Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala****77. zenbakia****Data 2011-04-26****14 orria****7 Udal Administrazioa**

LASARTE-ORIAKO UDALA

**KONTAGAILU TAXIMETROA DUEN TURISMOKO IBILGAILUETAN -HEMENDIKA  
AURRERA TAXIS- ESKAINTZEN DIREN ORDENANTZAREN AKTAS BATZUEREN  
ZUANEKETAK**

LASARTE-ORIAKO UDALA

Akats zuzenketa

Akats bat hauteman dugu «Kontagailu taximetroa duen turismoko ibilgailuetan –hemendik aurrera taxia– eskaintzen diren bidaiarien hiri-garraioko zerbitzuak arautzeko Ordenantzaren» behin betiko onespenerari buruzko iragarpenean, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALAREN 2011ko otsailaren 7ko 24. zenbakian argitaratutakoan. Beraz, zuzenketa hauek egiten dira:

2. artikulua.

— Honela dioen lekuan:

2) Taxi bidezko hiri zerbitzuak: ..... udalerrian eskaintzen diren zerbitzuak.

— Honela esan behar du:

2) Taxi bidezko hiri-zerbitzuak: Ibilbide osoa Lasarte-Oriako udalerrian egiten duten zerbitzuak.

10. artikulua.

— Honela dioen lekuan:

1) Soldatapeko gidariak .....(e)ko Udalak lizentzia jabeei eskatzen dizkien gaitasun profesionalaren baldintza berak bete behar dituzte, eta ez dira sartuta egongo ordenantza honetan eta 2000ko ekainaren 29ko 2/2000 Legean (turismo ibilgailuetan bidaiarien hiri eta herriarteko garraio publikoarena) eta bere garapen araudian edo horren ordezkian adierazten diren ezgaitasun edo debekuetan.

— Honela esan behar du:

1) Soldatapeko gidariak Lasarte-Oriako Udalak lizentzia-jabeei eskatzen dizkien gaitasun profesionalaren baldintza berak bete behar dituzte, eta ez dira sartuta egongo ordenantza honetan eta 2000ko ekainaren 29ko 2/2000 Legean (turismoko ibilgailuetan bidaiarien hiriko eta herriarteko garraio publikoarena) eta bere garapen-araudian edo horren ordezkian adierazten diren ezgaitasun edo debekuetan.

17. artikulua.

— Honela dioen lekuan:

4) «Egokitutako» edo aldi baterako «egokitutako» lizentziek ezinduentzako egokitutako ibilgailu bat izango dute atxikita, garraioaren irisgarritasunari buruz indarrean dagoen araudiaren arabera.

Egokitutakoa gisa gaitzen duten ezaugarriak ezin izango dira aldatu ibilgailua zerbitzuan dagoenean, ..... berriazko baimenik gabe.

— Honela esan behar du:

4) «Egokitutako» edo aldi baterako «egokitutako» lizentziek ezinduentzako egokitutako ibilgailu bat izango dute atxikita, garraioaren irisgarritasunari buruz indarrean dagoen araudiaren arabera.

Egokitutakoa gisa gaitzen duten ezaugarriak ezin izango dira aldatu ibilgailua zerbitzuan dagoenean, Lasarte-Oriako Udalaren berariazko baimenik gabe.

18. artikulua.

— Honela dioen lekuan:

2) Zerbitzuari atxikitako ibilgailuei indarrean dagoen araudiak ezartzen dituen aldizkako azterketan egingo zaizkie eta baita .....(e)ko Udalak eskatutako aparteko guztiak.

— Honela esan behar du:

2) Zerbitzuari atxikitako ibilgailuei indarrean dagoen araudiak ezartzen dituen aldizkako azterketak egingo zaizkie, eta baita Lasarte-Oriako Udalak eskatutako aparteko guztiak ere.

19. artikulua.

— Honela dioen lekuan:

2) Udal ikuskatzaileek herri-agintariaren izaera izango dute, dagozkien eskumenen barruan jarduten badute, eta bere lana egiteko erabateko independentzia izango dute. ....(e)ko Udalak bere antolaeraren arabera erabakiko du zein udal langilek beteko dituen ikuskatzaile lanak. Dena den, udaltzaingoko agente guztiak zerbitzuaren ikuskatzailetzat hartuko dira, eta ez daukate bere izaera zertan aurkeztu beharrik lizentziaren jabeari edota soldatapeko langileari.

— Honela esan behar du:

2) Udaleko ikuskatzaileek herri-agintariaren izaera izango dute, dagozkien eskumenen barruan jarduten badute, eta bere lana egiteko erabateko independentzia izango dute. Lasarte-Oriako Udalak bere antolaeraren arabera erabakiko du Udaleko zein funtzionariok beteko dituen ikuskatzaile-lanak. Dena den, udaltzaingoko agente guztiak zerbitzuaren ikuskatzailetzat hartuko dira, eta ez daukate bere izaera zertan aurkezturik lizentziaren jabeari edota soldatapeko langileari.

Lasarte-Oria, 2011ko martxoaren 31.—Alkatea.

(2081) (4794)